

15.000 sinadura bildu dituzte Arabako hiru parke eolikoaren aurka

Arabako Mendiak Aske plataformak uste du «ezinbestekoa» dela proiektuak geldiaraztea • Tapiak adierazi du beste kokapen batzuk ere aztertzen dabilzala; tartean, baita Gipuzkoan eta Bizkaian ere

Amaita Ramirez de Ojariz
Kortabarría Gasteiz

Arabako Mendiak Aske plataformak lurralde honetan eraiki nahi diren hiru proiektu eolikoaren aurkako kanpaina bat abiatu zuen orain hilabete, eta, ohartarazi duenez, 15.000 sinadura bildu dituzte. Haien arabera, halako proiektuek mendien industrializazioa dakarte, eta hori «onartezina» da. Jasotako babesaren ostean, ordea, uste dute aldatetarako urratsak egin behar direla: «Ezinbestekoa da berdeguneetan mota horretako azpigitura grisak baztertzea, cremu natural horiek bizirik irautea beharrezkoa baita lurraldeko bizitzari eusteko, eta hala adierazi du gizariek».

Eguzki kezkaturata dago Garoñaren erailspena dela eta

➊ Eguzki talde ekologistako Garoñako (Burgos, Espainia) zentral nuklearraren erailspeneko lehen faseko proiektuaren aurka egin du. Haren arabera, gogoan izan behar da erailspenak osasunerako eta ingurunerako dituen arriskuak, eta aztertu egin behar da irateke bestelako aukera posibleak. Proiektuari alegazioak egin dizkio taldeak, eta informazioa eta gardentasuna eskatu ditu; baita segurtasun neurriak mantentzea ere, inguru biziberritzeko prozesu batekin batera.

Zehazki, martxoaren 16an argitaratu zen BOEn zentral nuklearra eraisteko lehenengo fasearen proiektua, eta atzo amaitu zen alegazioak egiteko epea. Hala ere, ekologistek solik fase bat aurkeztea ere salatu dute, erailspenaren «osotasuna» gogoan ez dela hartzen argudiatuta.

Proiektu eolikoaren eztabaida nagusi izan da azken hilabeteotan. Jaurlaritzaren menpeko EEE Energiaren Euskal Erakundeak Aixeindar sortu zuen Iberdrolarekin batera, eta Araban eraiki nahi dituzten lau parke eolikoaren berri eman zuten. Iturrietako, Armakoko eta Labrazako proiektuak dagoeneko BOEn argitaratuta daude apirila geroztik, eta alegazioak egiteko tartea zabalik egon da azken hilabete honetan. Arabako Mendiak Aske plataformak ez ezik, Ahal Duguk ere 97 alegazio aurkeztu zituen joan den astean

hiru proiektu horien aurka. Horrez gain, Azazetaren ere parke eoliko bat ezarri nahi dute, eta Arlabanen haize neurtzaile bat jarri nahi dute, eremu horretan parke bat egiteko aukera aztertzeko.

Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapeneko, Jasangarritasuneko eta Ingurumeneko sailburua ere parke eolikoek mintzatu zen atzo, eta ohartarazi zuen Araban beste kokapen batzuk ere aztertzen dabilzala, eta ingurumen inpaktuaren txostenak egin dituztela. Horrez gain, erantsi zuen Bizkaian eta Gipuzkoan ere parke eolikoak ezarri daitezkeen aztertzen dabilzala. Haren arabera, Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektorialak baldintzatzen du proiektu horien kokapena, besteak beste bertan zehazten delako leku bakoitzeko haizearen ezaugarriek zein gaitasun duten elektrizitatea sortzeko. Helburua da 2030ean kontsumituko den energiaren %74 berriztagarriek sortutakoa izatea.

Plataformako kideek, ordea, azpimarratu dute energia eolikoa sortzeko aurkezten ari diren proiektuen ereduak energia berriztagarrien abantailak «ballon babetu» egiten dituztela, eta, era berean, Araban parkeak eraikitze gero eta kokapen gehiago

proposatu izana salatu dute. Hala ere, gogorarazi dute orain hainbat urte leku horiek babesteko «adostasuna» lortu zutela instituzioek, eta, beraz, proiektuak geldiarazteko eskatu dute. Are, erantsi dute Azazetako proiektuaren aurkako herri alegazioen

2030ean kontsumituko den energiaren %74 berriztagarriek sortzen jarri du Jaurlaritzak helburu gisa

Plataformak sinadurak bildzen segituko du Azazetako proiektuaren aurka; del egin du «natur ondaren» defendatzeko


sinadurarekin jarraituko dutela. «Lurraldeko biztanleak natura ondarea defendatzeko lanean jarraitzea animatzen ditugu».

Espainiako Gobernuak Araban duen azpiordezkaritzan entregatuko dituzte sinadurak bihar, Gasteizen, eta elkarretaratzeko ere egingo dute, 11:30ean.

Nafarroan ere aurka

Nafarroan ere hainbat parke eoliko eraiki nahi dituzte, baina hainbat talde atzeratu dira aurka. Haize Berriak plataformak bost mendi marxa antolatuko ditu maiatzaren, Sacyr enpresak Iruñerriko iparraldean eraiki nahi dituen bost proiektuaren aurka. Eguesibar, Esteribar, Ezkabarte, Lizotain-Arrilasagoiti, Odieta, Olaibar, Erro, Anue eta Xulapain bailarak batuko dituzte ekimenen bitartez, proiektuek eremu horietan izango baitute eragina.

Hilaren 9an egingo dute lehen marxa, Anotzen, eta Aldaun eta Mendurro mendiak igoko dituzte, Ostean, lekuko pasatuko die hurrengo eskualdeetako herri-tarrei, eta igandero egingo dute marxa bat. Hilaren 26an eta 27an amaituko da, Ultra Korrika ekimenarekin. 160 kilometro inguruko ibilbidea izango da, eta helburua du eskualde guztiak igarotzea.



Elgeako parke eolikoa (Araba), artxilboko trudi batean. BERRIA

Sinadurak bilduko dituzte Donostiako surf parkearen aurka

Eredakzioa

Donostiako Martutene auzoan eraiki nahi duten surf parkearen aurkako sinadura bilketa hasiko dute Donostiako eta inguruko herrietako zenbait surfarik. Aizarnazabalgo (Gipuzkoa) Wavegarderen enpresarena da proiektua, eta Donostiako Udaleren babesa du lehiaketa publiko batera aurkezteko. Ideia gauzatzekotan ere enpresak kudeatuko luke; olatuak egiteko makineta eta parke artifizialeko ur tratamenduan espezializatutako lantegi bat da.

Surfrider Foundation Europe kolektiboak adierazi duenez, sur-

flariak eskatuko dute proiektu hori berehala geldiaraz dezatela, eta azaldu dute helburu hori lortzeko mobilizatuko direla, hala nola «proiektuaren ondorio negatiboak inguruan informatuz». Proiektuaren aurkako hamabost argudio zerrendatu dituzte, eta azpimarratu dute proiektuak ez diola herritarren eskaera edo behar bati erantzuten.

Martxoan sortu zuten surf parkearen aurkako kolektibo hori, surfaren eta ekologiaren alorreko zazpi elkarreterean artean. Ordu hartan, azaldu zuten proiektuaren balioak surfarien komunitatearen aurka joango liratekeela.